

Gogoratzen duzu txikitako lekuren bat, orain ez dagoena?

Denok daukagu lekuren bat txikitako oroitzapen bereziak ekartzen dizkiguna.



Jarduera honetan, zuretzat garrantzitsuak izan diren lekuei buruz hitz egingo dugu. Horretarako, ariketa hauek egiteko aukera izango duzu:

- Bideoa ikusi eta hutsuneak bete.
- Testua irakurri eta erantzun zuzena aukeratu.
- Deskribapenak egiten ikasteko aukera izango duzu.
- Taldeetan gaiaren inguruan mintzatu.

Ikusi bideoa

Jarduera honetan, guretzat garrantzitsuak izan diren lekuez arituko gara. Horretarako, ikusi jarraian daukazuen bideoa eta ondoren, saiatu beheko esaldiak osatzen:

<https://labur.eus/QI6Mo>

1. Ximun Fuchsek argi du gaztetako bere leku kuttuna _____1_____ dela.
2. Iparraldeko hilerrietan, _____2_____ lehenengo maitasun istorioak izaten dituzte edo drogak lehendabizikoz probatzen dituzte.
3. Jaione Alberdik, berriz, Arrigorriko _____3_____ aipatu digu.
4. Gaur egun, zeharo aldatuta dagoela esan digu Jaionek: gure eraikina zegoen lekuan, orain _____4_____ dago.
5. Jaionek han lehenengo harremanak bizi izan zituen eta _____5_____ joateko aukera ere izan zuen, garai hartan ez baitzen orain bezain erraza.
6. Ximunek ez du leku horretara itzuli nahi. Gaur egun, ez duelako lehen zeukan _____6_____ hori.
7. Jaionek oroitzapen _____7_____ ditu, han oso ongi pasatu zuen.



Irakurri testua

Testua irakurri ondoren, aukeratu zein den erantzun zuzena:

Aspaldian ez zara gogoratu, baina bat-batean oroitzapen bat etorri zaizu burura: gazteagoa zinenean, leku hartan une goxoak igaro zenituen eta ez dituzu ahaztu nahi. Agian, toki hura desagertu egin da edo, bestela, zeharo aldatu da: parkea, hilerria, hondartza, igerilekua, zuhaitza, amildegia, denda... Edozein izan daiteke. Baina garrantzitsuena ez da lekua; garrantzitsuena bertan bizitakoa da, zure oroitzapenak.

Askotan nostalgiak begiratzen diogu iraganari, une, egoera edo gertakizun hura berriro bizitzeko gogoz. Baina posible da? Berriro biziko dugu?

Galdera hauei erantzuna emateko, Ximun Fuchsekin (Larزابale, 1974) eta Jaione Alberdirekin (Eibar, 1961) solastu gara. “Hilerria esango nuke. Herriko festetan han gertatzen ziren maitasun istorio asko. Edariak edo drogak ere han dastatzen genituen lehenengo aldiz”, azaldu digu Fuchsek. Ipar Euskal Herrian hilerriak ez dira herritik kanpo egoten, elizaren inguruan baizik, eta herriko bizitzari oso lotuak egoten dira. Horregatik, gazteek han gauza asko egiten dituzte. “Nire antzerki batean agertzen zen hilerri hura, baina egia da ez naizela hara itzuli gaztea nintzenetik. Orain ere, lehen zegoen leku berean jarraitzen du”.

Alberdik, berriz, guztiz bestelako kontu bat ekarri du gogora: “Nik Arrigorriko udalekua dut gogoan, Ondarroan. Alfa enpresako langileen seme-alabentzat antolatzen zuten, eta pare bat asterako joaten ginen”. Han, itsasoari begira egoten ziren lekuan, gaur egun hotela dagoela kontatu digu.



Jaione Alberdik udalekuak aipatu dizkigu eta Ximun Fuchsek, berriz, hilerria.

OROITZAPENAK

Leku horretan zerbait bizi izan zenuen, zerbait gertatu zen... Nola gogoratzen duzu? Nostalgiaz, irriz, kopetilun, ahazteko gogoz, itzultzeko desiraz... “Niretzat, han bizitakoak lehenengo aldiak, lehenengo pausoak izan ziren, eta orain ez dut berriro joan nahi. Zergatik? Ez diodalako xarma kendu nahi. Horregatik ez naiz berriro joango hilerri horretara”, kontatu digu Ximunek. “Han maitasuna bizi izan nuen. Horixe da gordetzen dudana sentimendua; horixe etortzen zait burura”.

Jaionek ere antzeko zerbait esan digu “lehenengo harremanak” aipatu dituenean: “Etxetik kanpo lo egin nuen; itsasoan igeri egiten ikasi nuen; zinemara joaten ginen, eta, garai hartan, orain baino zailagoa zen zinemara joatea”. Oroitzapen horiek bakarrik ez, irribarretsu “bihurrikeria batzuk” ere egiten zituztela aitortu digu, “txalupak hartu eta itsasoratu”, adibidez. Berarentzat “ondo igarotako denbora” izan zen.

ERREPIKATUKO DUGU?

Gure gaztetako lekuak lehen zegoen bezala jarrai dezake, edo zeharo aldatuta, edo jada ez dago, desagertu egin delako, baina inork ezin du garunean gordeta daukaguna aldatu: han egindako erosketak, eduki genuen istilua, emandako lehenengo muxua, ikusitako antzerkia, margotutako koadroa... Haiek han bizi izan genituen, baina bizipen horiek beste nonbait izatea posible da, zure ustez?

“Nire kasuan, berriro bizi izan dut maitasun sentimendua. Hori bai, ez molde berean”, azaldu digu Ximunek. “Nire herrian, istorio anitz gertatu dira leku horretan. Iparraldean, eliza, plaza, pilotalekua eta hilerria alboan egoten dira, eta horrexegatik dira lekurik diskretuenak”. Gainera, polita atzematen duela dio: “Hilen eta bizien arteko lotura hori, hain agerikoa, polita iruditzen zait”.

Jaionek ez du itxaropena galtzeko asmorik: “Bizitzan beti dago gauza berriak egiteko aukera. Ez duzu uste? Baina oso zaila izango da, adinak ere esanahia baitu kontu horretan”. Eta zuk, zer uste duzu? Gaztetan leku hartan bizi izan zenuena berriro biziko zenuke? Zein da zure leku kuttuna? Gaur egun bere horretan egoten jarraitzen du edo aldatu egin da?

Ordezkatu hurrengo esaldian beltzez ageri dena: “Agian, toki hura desagertu egin da edo, bestela, zeharo aldatu da”.

- Guztiz
- Ia
- Nahikoa

Askotan, nola begiratzen diogu iraganari?

- Bizitutakoa berriro bizi nahiko ez bagenu bezala.
- Bizitutakora itzultzeko irrikaz.
- Beste bi erantzunak zuzenak dira.

Fuchsek eta Alberdik aipatutako lekuak zerk lotzen ditu?

- Ordutik ez dira berriro itzuli.
- Beraien herrian bertan daude.
- Gaur egun, lehen zeuden bezala jarraitzen dute.

Zer esan du Fuchsek hilerriari buruz?

- Itzuli egingo dela berarentzat daukan xarma galdu baino lehen.
- Gaztea zenetik ez dela gehiago itzuli.
- Bertan antzerkia egin zuenetik ez dela joan.

Alberdik udalekuetan hainbat gauza egin zituen. Hauetatik zein ez da egia?

- Txalupa baimenik gabe hartu zuen.
- Garai hartan ez zuten gaiztakeriarik egiten.
- Zinemara behin baino gehiagotan joan zen.

Zer esan nahi du Fuchsek “baina ez molde berean” esaldiarekin?

- Hilerrian bizitako maitasuna edo gerora bizi izan duena bi modu desberdin direla.
- Benetako maitasuna hilerrikoa zela.
- Lehen eta orain, edozein lekutan, maitasuna maitasuna dela.



Lekuak deskribatzen

Leku baten deskribapena egiten ikasiko duzu. Horretarako, ikusi prestatu dugun adibidea eta ondoren, eskemari jarraituta, zuk zeurea idatziko duzu:

-ZER DA?

Nire txikitako leku kuttuna herriko aintzira zen.

-ZER DAGO? (NOLAKOA DA, NON DAGO?)

Aintzira handi eta urdinaren inguruan, belardi zabal bat zegoen eta eguzkia hartzera joaten ginen hara. Belardiaren ezkerrean haurrak jolasteko parke bat zegoen eta eskuinaldean, berriz, mahaiak eta aulkiak. Aintziraren ondoan etzanda egoten ginen, txorien abestiak entzuten genituen. Leku lasaia zen.

-ZER EGITEN ZENUEN HAN?

Eguzkia hartzen genuen, aintziran bainatzen ginen, eta, noizean behin, bertako mahaietan bazkari eder bat egiten genuen. Primeran pasatzen genuen.

-ETA ORAIN ZER DAGO? ITZULI ZARA?

Gaur egun, lekua guztiz aldatu da: ur ertzean hotela eraiki dute, eta, lasaitasuna egon beharrean, orain jendez beteta egoten da. Hala ere, ni gutxienez urtean behin joaten naiz, oraitzape oso onak ekartzen dizkit eta!

Eta zure leku kuttuna zein da? Deskribatu ezazu. Horretarako, saiatu honako galdera hauei erantzuten:

-ZER DA?

-ZER DAGO? (NOLAKOA DA, NON DAGO)?

-ZER EGITEN ZENUEN HAN?

-ETA ORAIN ZER DAGO? ITZULI ZARA?



Eta zuk?

Jarri taldean eta erantzun ondorengo galderi:

- Gogoratzen duzu txikitako lekuren bat? Zein?
- Leku hori asko aldatu da? Desagertu egin da? Lehen zegoen lekuan jarraitzen du?
- Zer bizi izan zenuen han? Zein oroitzapen dituzu?
- Nostalgiaz begiratzen diozu iraganari?

Zuzenketa-orria

Ikusi bideoa

1. hilerria / 2. gazteek / 3. udalekua / 4. hotela / 5. zinemara / 6. xarma / 7. politak

Irakurri testua

Ordezkatu hurrengo esaldian beltzez dagoena: “Agian, toki hura desagertu egin da edo, bestela, zeharo aldatu da”.

Gutziz

Askotan, nola begiratzen diogu iraganari?

Bizitutakora itzultzeko irrikaz.

Fuchsek eta Alberdik aipatutako lekuak zerk lotzen ditu?

Ordutik ez dira berriro itzuli.

Zer esan du Fuchsek hilerriari buruz?

Gaztea zenetik ez dela gehiago itzuli.

Alberdik udalekuetan hainbat gauza egin zituen. Hauetatik zein ez da egia?

Garai hartan ez zuten gaiztakeriarik egiten.

Zer esan nahi du Fuchsek “baina ez molde berean” esaldiarekin?

Hilerrian bizitako maitasuna edo gerora bizi izan duena bi modu desberdin direla.

Transkripzioa

1. Gaztetan zuretzat kuttuna zen lekuren bat esango diguzu?

Ximun Fuchs: Bai, ba begira, esango dizut, pixka bat absurdoa, orduan lotua dena, ateratzen nuen hori antzerki batean, eta justuki nire haurtzaroko herri txiki horretan, frontoiaren gibelean, bazen hilerri bat. Eta beraz, herriko festetan, han gertatzen ziren noski maitasun istorio asko, edariak eta lehen aldiz drogatzen zirenak han egiten zuten. Beraz, Iparraldean asko bada hori, hilerriak ez dira herritik kanpo, oso lotuak dira herriko biziari eta askotan, gazteak han biltzen dira egiteko gazte-gauzak. Eta ez naiz sekula joan berriz hilerri horretara.

Jaione Alberdi: Ba bai, badaukat eta da Arrigorriko udalekua. Hura zen Alfako seme-alabentzat, uste dut hilabete osoa ez bagenuen egiten, hamabost egun bai, egiten genuen. Neretako (niretzat) zen, ematen zuen... Egiten nuela hilabete oso bat! Seguru ez zen izango hilabete osoa baina... Eta han zegoen, eraikin handi bat zen eta han itsasoari begira... Gaur egun, uste dut hotela dagoela eginda, bai, bai, zeren da, bueno, leku paregabea!

2. Zein oroitzapen ekartzen dizu leku horrek?

Ximun Fuchs: Maitasuna.

Jaione Alberdi: Lehenengo harremanak, holan (horrela) etxetik kanpo lo egin eta... Ba horrek danak! Gero itsasoan igerian eta zinemara ere joaten ginen, gure garai hartan ba herrian bertan ez ginen askotan joaten, eta orduan han, noizean behin eta ba bueno, gero bihurrikeri batzuk ere egiten genituen eta... txalupak hartu eta holaxen (horrelaxe).

3. Nostalgia sortzen dizu? Zergatik markatu zintuen leku hark?

Ximun Fuchs: Benetan nostalgiarekin ez dut hainbesteko... Esango dut, beharbada hori erraiteak berak astakeri handi bat da baina... Lehen aldiak, lehen pausoak direlako eta orduan hartzen du... Joaten naiz ikustera orain eta xarma guztia kendua da, beharbada ez naiz joaten ez diodalako nahi kendu izan duen xarma.

Jaione Alberdi: Nostalgia edo bueno behintzat oroitzapen politak, politak. Bai, bai, ez dakit holan (horrela) ondo pasatutako denbora bat izan zela eta...